

...eta

# Kitto!

922 zkio.  
2015-III-6



## Ezkutukoa begibistaratzen

R.P.S. IV 149/14 I.L.G.



ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA  
IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

ZURE BIGARREN LEIAR PROGRESIBOAK

# OPARI VARILUX®

ERABATEKO BABESA

Konsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABERO ORDUTEGIA**



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

**Autran Institutoa, Bartzelona.**

Etengabeko Formakuntza.

**New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

**Anibal Alonso Doktorea.**



**Astelehenetik ostiralera:**

**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**

**10:00etatik 14:00 etara**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

## ASTEAN ESANAK

"Topagunearen azterketan galdetutako etxeen %84an tokiko komunikabidea zen etxe horretan sartzen zen argitalpen bakarra. MU-ren doktore tesi baten arabera, nerabeei galdetuta ea ikus-entzunezkoak zein hizkuntzatan kontsumitzen dituzten, %14,2 izan zen euskararen batez besteko partea. Baina Debagoienan %39,4 zen, Goierriin %31 eta Debabarrenean %21,4. Hau da: toki komunikabideen garapenak zuzenean handitzen du gazteengan ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitzeko joera"

(MIKEL IRIZAR,  
KOMUNIKAZIOAN ARITUA)

"Hasieran, 'euskara hutsez' baino, "'euskaraz' jartzeko esaten hasi ziren. Ondoren, 'euskaraz, baina hizkuntza eskubideak errespetatuz' ipintzeko. Bestelako beharpenak ere izan ditugu. Azkeneko gomendioa 'euskaraz ere' jartzeko izan da. Hori ez dugu onartuko. Nora goaz 'euskaraz ere egingo da' esanez, gauza asko eta asko euskaraz baino ez garenean ari egiten?"

(MIREN SEGUROLA,  
UEMAKO KOORDINATZAILEA)

"Dantza taldeetan badagoenez tradizioagaz jarraitzeko borondatea, zerbait inoiz egin ez bada, kostatzen da orain egin daitekeela planteatzea. Eta, historia ezagutzen ez dugunez, 'horrela egin da beti' esaten dugunean, gehienetan gezurra esaten dugu, nahiz eta gu horren jakitun ez izan"

(OIER ARAOLAZA,  
DANTZARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KITTO EGIN.- Kontuak garbitu, kitatu. "Hil-kanpai horrekin ordaindu ditte zittuan zorrak, eta hor, kitto egin dau danekin".

KIXIMAJUA EGIN.- Frantsesen moduan "ejekin" hitzegin. "Hárek frantsesa ero, frantses-euskaldunen antzera egitten dabe, pixkat kiximajua eta zera; entenidu egitten da, baiña..."

## eskutitzak

### EIBARKO KALEEN IZENAK GENERO BEGIRADAPEAN

Herri bat osatzerakoan eta garatzerakoan hainbat faktore eta aldagai kontuan hartzen dira, eta horien artean izaten da herri horren historian zehar bertako biztanleek egindako ekarpena, eta ekarpen horiek egin dituzten pertsonen aitortza. Hori guztia irudikatzen du modu ezberdinak egon arren, herriek dituzten kale izenak ekarpen eta aitortza horien eskaparateak izaten dira. Gure herriko kale izendegia aztertuz gero zera aurkitzen dugu: herrian 100 baino kale gehiago direla, eta horietatik guztietatik 24 kalek pertsonen izena dutela. Eta pertsonen izena du-

ten 24 kale hauetatik kale batek bakarrik daruma emakume baten izena. Eibarko Ernai, LAB eta Sortu erakundeetatik honen gainean gogoeta egiteko eta ondorioak ateratzeko gonbitea egiten dugu, eta gure kaleetan emakumezkooi dagokigun espazioa eta aitortza ematea eskatzen dugu, 'Historia de las mujeres de Eibar' izeneko liburuan agertzen den bezala, gure herriaren historian zehar emakumezkook egindako ekarpena handia izan baita. Eibarren kale izendegi parekidea behar dugu!

**EIBARKO ERNAI, LAB, SORTU**

### - OHARRA -

Aurten San Jose eguna (martxoaren 19a) jai-eguna da eta, eguna denez, horko zubian ez dugu alerik kaleratuko: beraz, **hilaren 20an ez duzue aste-karirik izango** zuen buzoietan. Datorren astean normal aterako dugu (hilaren 13an), baina hurrengo

27an kaleratuko dugu. Hori dela-eta, tarte horretarako edozein informazio edo zorian agur kaleratu gura duzuela, hartu ezazue kontuan data horiek. Eskerrik asko.

**ERREDAKZIOA**



Euskara Elkarteak

**ARGITARRAZTZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekarriaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /

publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Sheila Lopez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Iñigo Arizaga

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

## Datu irekixen inguruko taillarra

Udalak, datu publikuen berrerabilpenaren inguruan antzeman dittuan aukerak sustatzeko asmuarekin eta datuok daken gizarte-balixua eta balixo ekonomika kontuan hartuta, taillarra antolatu dau eremu horretako aukerak ezagutzera emoteko. "Datu irekiak: aukera handia kazetariarentzat eta Giza Zientzietako beste profesional batzuentzat" izenburuko saiua martxuaren 17xan Portalean egingo da eta batez be Giza Zientzien arloko profesionaleri begira antolatu dabela diñue, "daken biharrarengaittik eurak baliatu leikiazelako datu eskuragarri eta

berrerabilgarrixak". Taillarra emoteko arduria eukiko daben hizlarixak Carlos de la Fuente (Alorza.net Work in Progress enpresakua) eta Alberto Ortiz de Zarate dira (bigarrena Antolaketa Psikologixan lizentziatua da eta, horrekin batera, Gobernu Irekian, herritarren parte-hartzian, datu irekixetan eta barrikuntza publikuan aditua be bada). Izena emoteko epia zabalik dago eta interesa dakenak hillaren 15era arte eukiko dabe horretarako aukeria, liburutegira juanda. Ordu-tegi bi dagoz aukeran (09.00xetatik 13.00era edo 16.00etatik 20.00etara) eta



Alberto Ortiz de Zarate Antolaketa Psikologixan lizentziatua.

izena emoten dabenak erabagiko dabe bixetatik zein nahixago daben.



## "Zea... Bingo!" film laburra

Ane Urkiola zinegille eibartar gaztiak zuzenduko daben lehen film laburra, "Zea... Bingo!" martxuaren 29xan Donostian filmatzeko asmu dake. Izar Films-ek ekoiztuko daben lanerako lortu daben talde tekniko eta artistikua osatzen dabenak musutruk jardungo dabe biharrian; baiña, halanda be, 2.000 euro inguru bihar dittue laburmetraia filmatzeko ekipua alokatzeko, materixala erosteko eta filmaren postprodukziñua egitteko. Dirua batzeko, "crowdfunding" kanpaiñia egin dabe (lagundu nahi dabenak [karena.eu/proiektua/zea-bingo](http://karena.eu/proiektua/zea-bingo) helbidera jo leike). Umore absurdua eta beldurra tartekatzen dittuan komedixa baltzian Sara Cozar, Haritz Lete, Gorka Julio, Maite Goñi, Iñaki Ortiz eta Imanol Epelde aktoriak hartuko dabe parte.

## Saharako andrendako laguntasuna

Euskal Sareak-ek Mendebaldeko Sahara bittan banatzen daben minaz beteta dagan "lotsaren harresixa" dalakuak kaltetutako andrazkueri laguntzeko kanpaiñian parte hartzera animau nahi dabe jendia. Horretarako, bakoitxak bere alkartasun eta konpromisuak oihal zati batian (15x15 edo 30x30 zentimetroko neurrixa dakan batian) idaztia proposatzen dabe, apirillian egingo daben Saharako Emakumien Batasunaren VII. kongresuan zati guztiak alkarri jositta oihal erraldoia osatzeko. Oihalak entregatzeko epia martxuaren 23ra artekua da eta Ermuko Emakumeen Topalekuan jasoko dittue (Izelaieta, 12. 48260 Ermua) eta gutunazalian "Dales tu fuerza kanpaiñia-UNMS-ri laguntzeko Euskal Sarea" erreferentzixa modura idazteko eskatu dabe.



Euskara Elkarteak

## ...eta kitto!-ren urteko batzarra eguenian

Martxuaren 12xan, datorren egunenian egingo dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak urteko batzar nagusixa alkartiaren egoitzan (Urkizu, 11 solairuartian). Lehelengo deialdixa 19.00etan izango da eta, ordurako bazkidien erdixa baiño gitxiago agertu ezkeru, 19.30xetan egingo da batzarra. Gai-zerrendia hauxe izango da: 2014ko gestioño-balantzia; 2015erako egitasmuak, bazkide-kuotak eta aurrekontuak; galderaerantzunak eta iradokizunak; zuzendaritza barrixaren hautaketia eta funtzionamendua; eta piskolabisa.

## Garbiñe Biurrunen hitzaldixa

Datorren astelehenian, 10.00etatik aurrera Garbiñe Biurrun epailliak hitzaldixa emongo dau Amerixa Eskolan, Ikasten alkartekuak antolauta. Biurrunek epaitegixetan hartzen diran erabagixetan gobernuak zelan eragitten daben azalduko dau. Jende guztiarendako zabalik as-tero egitten diran hitzaldixak normalian martitzenetan izaten dira, baiña datorren astekua antolatzen asteko eguna kanbi-xau eta, behingugaittik, astelehenian egingo dabe saiua. Gaiñera ez da hori izango datorren asteko programaziñuak eukiko daben aldaketa bakarra: hillaren 12xan (eguenian) Josu Novok emongo da-ben hitzaldixa ohiko tokittik kanpora, Portalean izango da, egun horretan Ar-merixa Eskolan tokirik ez dago eta.



Jende guztiarendako zabalik as-tero egitten diran hitzaldixak normalian martitzenetan izaten dira, baiña datorren astekua antolatzen asteko eguna kanbi-xau eta, behingugaittik, astelehenian egingo dabe saiua. Gaiñera ez da hori izango datorren asteko programaziñuak eukiko daben aldaketa bakarra: hillaren 12xan (eguenian) Josu Novok emongo da-ben hitzaldixa ohiko tokittik kanpora, Portalean izango da, egun horretan Ar-merixa Eskolan tokirik ez dago eta.

## Lino Mondragon kazetarixa hil da

Azken hogeitortioan Gasteizen bizi izan dan Lino Mondragon Eibarko kazetarixa Euskadiko hiriburuan hil zan martitzenian, 65 urterekin. Eibarren jaixotakua, Madrillera jua zan ikas-tera, Zientzia Politikuak lehelengo eta Zinema eta Kazeta-ritza Eskolan gero. Arrate zine-klubaren sortzaillietakua izan zan eta gure herriko El Correo-ko erredakziñuan ekin zetsan kazetari biharrari. Horretan urtiak emon eta gero, 1996xan Gasteizko delegaziñora jua zan biharrera eta azken urtietan ekonomixari lotutako gaixak lantzen ibi-lli zan, oin dala urte gitxi batzuk jubilau zan arte. Eiba-rran emon zittuan urtietan gure herriko kazetari asko-rendako maixu modukua izan zan. Lerro hauen bittartez famelixa eta lagunen artian bere heriotzak eragin daben atsekabian bat egitten dogu geuk be.



## autuan

### SAN ANDRES-EKUEN BAZKARIXA

San Andres eskolia sortu zala 50 urte bete direla ospatzeko egitarauaren barruan, ikasle ohi, irakasle eta bestelako bihargiñendako bazkarixa antolatu dabe apirillaren 25erako. Juan nahi dabenak 25 euro sartu biharko dittu Laboral Kutxa-ko ES7930350023910231151469 kontuan martxuaren 31a baiño lehen (ahaztu barik izena eta abizen bi ipiñi). Bestalde, tokixa mugatuta daguanez, ekitaldixa bakarrik 18 urtetik gorakuendako izango da.



### MARTXUAK 8

Emakumiaren Eguna dala eta, domekan hainbat ekitaldi hartuko dittu Untzagak 11.00etatik aurrera, tartian "photocalla" eta "Feminista naiz" goiburuari jarraituko detsan alkarratartzia. Horrekin batera, bazkarixa eta 18.00etan Andretxean hasiko dan karaoke feminista be antolatu dittue udalak eta Eibarko Emakumien Mahaixak.

**eitek**  
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

**Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena**

[www.eitek.net](http://www.eitek.net)

**MARCAN HUELLA Debabarreneko txakur abandonatuei etxea aurkitzen laguntzen dien etekin asmorik gabeko erakundea da**

**TXAKURRENTZAT BEHIN-BEHINEKO ETXEAK BEHAR DITUGU**

Behin-behineko etxeetan txakurra zainduko da behin-betiko familia aurkitu bitartean

**Ez du gasturik, erakundea arduratzen baita gastu guztiez**

**Marcan HUELLA**

664 27 59 91  
688 69 64 15  
[marcanhuella@gmail.com](mailto:marcanhuella@gmail.com)

## asteko 24 datua

langabetu gitxiago euki ditu Debarrenak otsailian urtarrillian baiño; Lanbiden izena emondakuak 4.108 (2.225 andra eta 1.883 gizon) ziran, aurreko hillian baiño 16 gizon eta 8 andra gitxiago.

## 47 bihargin kaleratzeko arriskua

Mecanica Mallabi, Alfa taldiaren barruan dagan lantokian 47 bihargin kaleratu nahi dituela salatzen mobilizazi-  
ñuak hasi ditue LAB sindikatuak eta, bere ekimenez, aste honetan kotxe-karabania eta alkarretaritzia egin dira, bestiak beste. Holakuekin "Alfa taldeko zuzendaritzak lanpostuak suntsitzen eta lan baldintzak prekarizatzen segitzen dabela" salatu nahi dabe. Horrekin batera, "100 lanpostu suntsitu, bihargin barrixak subkontratu eta enpresetako bihargin-  
neri soldatia modu nabarmen-



Mecanica Mallabikuen egoeraren barri emoten daben pankartia ipiñi dabe Untzagan.

nian jaitsi eta gero, enpresia 2013ko abenduan hartzekodunen konkursotik urten ebalan gogora ekarri nahi dabe.

## Gurasuak euskeriarekin motibatzen

Gurasoak Berbetan mintza-  
praktika egitasmuaren barruan, ...eta kitto! Euskara Elkartek "Euskerarekiko motibazioa eta jarrerak" hitzaldia antolatu dau gurasuendako bereziki. Euskeriaren transmisioan famelixak gune estrategikua dirala argi ikusten da-

be eta, horregaittik, "gure seme-alabengan euskeriaren aldeko jarrerak adieraztiak dakan garrantzixarengaittik" saia antolatzea erabagi dabela diñue. Hitzaldia datorren asteko barixakuan, hillaren 13an emongo dabe, 17.30xetan hasitta, euskera alkartiaren egoitzan (Urkizu, 11n solairuartian). Ordu bete inguru iraungo daben ekitaldixa nahi daben jende guztiarendako zabalik egongo da, partehartzia be duan da eta bihar dabanandako umiendako zaintza-zerbitzua eskinduko dabe.



## Dendetan be Euskeraz Primeran!

...eta kitto! Euskara Elkartek, udalaren babesarekin, Euskeraz Primeran! kanpaiñiaren gizarteratze-prozesuari ekin detsa. Aurreko astian serbilletak eta azukre-zorruak banatu zittuen kanpaiñiarekin bat egin daben tabernetan eta aste honetan, barriz, dendetan karameluak banatzen ibilli dira. Bezeruekin lehengo berbia euskeraz egitteko konpromisua hartu dabe hórrek establezimenduak, baiña hizkuntza kontuetan herrittarrak be badakagu zer esan, erabilleria areagotzeko euskeria alde bixen arteko hartu-emonian erabiltzia ezinbestekua dalako. Horregaittik kanpaiñako arduradunak jende guztia animau nahi dabe, "Euskeraz Primeran! pegatina daken tokixetan be, bertako bihargiñak ez eze, beste guztiak be euskeraz eskatu eta berba egitteko primerako aukeria dakagulako".



## M<sup>a</sup> ISABEL AREVALO AIZPURU

1. urteurrena: 2014-III-4

Hamalau urtetan zurekin egon ginen moduan, azken urtian ere gure artean izan zaitugu.

Javi, Loli, Juan Manuel, Adalina, Carmen eta Angel  
GOGORA DEZAGUN IZAN ZEN BEZALAN





**OLATZ PAGALDAY, aktorea**

*Datorren martxoaren 10ean, martzitena, "Erdaldun berrien kluba" bakarrizketa eskainiko digu Olatz Pagalday eskoriatzarrak Portalean, arratsaldeko 19:00etan. 19. Korrika Kulturalaren barruan ...eta kitto!-k antolatutako ekitaldietako bat da eta euskararen erabileraren inguruko gogoeta bultzatu nahi du jendearengan. Beti ere umore klabean eta ikusleei ikuskizun alaia eta atsegina eskaintzeko asmoz.*

## **Gaztelerarekin arazoak dituzten euskaldun zaharren Kluba Eibarren**

### **- Zer da "Erdaldun berrien kluba"?**

Batetik, Erdaldun Berrien Kluba, Arrasateko AED elkarteak ekoiztutako bakarrizketa da. Euskararen inguruko gogoeta sortu eta erabilera sustatzeko ekintza; bestetik, Irantzu, bakarrizketako protagonista, sortzen saiatzen ari den klub bat da. Gaztelerarekin arazoak dituzten euskaldun zaharrek osatuko luketena.

### **- Zer du "Erdaldun berrien klubak helburu?"**

Alde batetik, gizartean edo erdaldun berri ez direnengan erdaldun berriengana kontzientzia sortzea; eta, bestalde, erdaldun berri direnei elkartasuna adieraztea eta baztertuta edo lotsagarri sentitzetik askatzeko laguntzea.

### **- Nolako da Irantzu? Berarekin identifikatuta sentitzen zara?**

Irantzu neska gazte euskaldun eta umoretsua da. Indartsua, finkatuta dagoena aldatzeko prest dagoena. Eta bai, testua irakurri nuenean guztiz identifikatuta sentitu nintzen. Nik ere izan nituen Irantzuren

gertaera antzekoak 18 urterekin Bilbora ikasten joan nintzenean, eta horregaitik iruditzen zait era batean sendagarria dela. Bestalde, uste dut oso ona dela antzerki-sendagarri hau Euskal Herrian zehar banatzen ibiltzea. Euskaldun berrientzako ere bai!! Eurek ere badute zatitxo bakanriketan...

### **- Nola sentitzen zara oholtzaren gainean zu bakarrik egotean?**

Oso ondo, egun guztiak ez dira berdinak; baina bai, oso gustora. Gainera esan beharreko zerbait esaten ari naiz, entzuleren bati on egingo diona... terapeutikoa.

### **- Nola hasi zinen antzerkigintzan?**

Eskoriatzan Selektibitate azterketa gairiditu eta Getxoko antzerki eskolan ikasi nuen lau urte. Amaitu eta Eskoriatzara bueltatu nintzen. Urtebete fabrikari lan egin ondoren, automobila erosi nuen eta segituan hasi nintzen lanean *Deabru Beltzak* konpainiarekin. Beno, aurretik kale antzerkia egiten nuen "*Los Barrueta-beña*", beste talde batekin. Gero "*Kanpa-*

*nolue*" ikuskizunarekin ibili ginen plaza-rik-plaza. Eta batekin eta besteekin... gaur arte!!

### **- Orain arte zer nolako lanak egin dituzu?**

Antzerki mota asko egin ditut, aretoan zein kalean. Haur zein helduentzako, Txontxongilo antzerkia ere egin dut, itzalena...

### **- Zein egoeratan dago gaur egungo antzerkigintza Euskal Herrian?**

BEZ-aren igoera oso kolpe gogorra izan zen eta da. Bestalde, eta hau nire iritzia da, teknologia berriek eta bizitza bizkor honek ez du laguntzen antzerkira joateko. Ea joera aldatzen den, kultur-sortzaileak baloratzen diren! Baina antzerkia sortu sortzen da eta batzuk joaten dira ikustera.

### **- Etorkizunari begira proiekturik edo asmorik bai?**

Bai. "Sendagarria" banatzen jarraituko dut (kar, kar.), gonbidatzen jarraitzen nauden bitartean... eta horrez gain beste pare bat proiektu entsaiatzen ari naiz, pare bat lagunekin... ea maiatzean estrenatzen dugun!!



## **EMILIO URIZAR GOXENCIA**

*Samindurik daukagu bihotza  
Motel bizitzaren garra  
Gaur faltan sumatzen dugu  
**ZUK EMANDAKO INDARRA***





Oin dala millaka urte be gizakixak bazekan bere begixen aurretik pasatzen zanaren errepresentaziñua egitteko gogua. Eta orduko materixalarekin baliatzen zan irudi eta marrazkixok egitteko. Gaiñera, halakuak sasoi hartako bizileku edo kobazuluetan dagoz eginda eta ez museuetan ikusteko moduan. Horregaittik goiaz gitxiñaka halako aurkikuntzak egitten, mundu horretan murgiltzen diran antropologuen eta espeleologuen alkarren arteko lanari esker. Azken aldixan ez dira geldirik egon eta juañ zan astian hamendik gertuko azken aurkikuntza aurkeztu eben: Erlaitz leizeko Goi Paleolitiko zortzi grabatu. **IÑIGO ARIZAGA** Eibarko Klub Deportiboko espeleologua izan zan lehelengua horraiño heltzen eta berarekin izan gara horren barri izateko.

# Oin dala millaka urtekuak deskubritzen

**Z**ortzi animalixa irudi topau dittue Antxieta alkarteko kidiak. Oin dala 22.000 eta 18.000 urte bittartian egindakuak. Ekaingo marguak (18.000-14.000) baiño zaharraguak dira, eta Danbolinzulokuak (25.000 urte) baiño barrixaguak. Goi Paleolitoko labar artiareñ grabauak dira Erlaitz leizekuak, goiko aldeko galeria bateko sabaixan aurkittutakuak. Grabauak Kantabriako itsasertzeko beste haitzuluetañ aurkittutakuen antza

haundixa dake (Kantabriako Castillon edo Bizkaiko El Rincon) eta haitzulo hori hillorbi gisa erabili eben Brontzezko Aruan.

## Zer da aurkittutakua?

*"Danbolinzuluan aurkittutakuaren ondoren, Gabonetan koba guztiak begiratzen jardun genduan, eta Paleolitoko arte diskretuaren ereduñ izan leikezenak aurkittu genduzan, hala deittutakuak ixa borrauta daguzelako",* diñosku Iñigo Arizagak. Koba nahiko traketsa da Erlaitzekua, zati bat sedimentuekin-eta hondoratuta dakana, eta bittartetik, galeria estua gaidittuta, *"horma lisuak dittuan kamara batera, kapera modukora, iristen zara; aztarnategixan berihala egitten dozu topo suharrixekin eta hango balkoia ikaragarrixa da, kriston jauzixarekin",* diño espeleologuak. Iñigo izan zan lehelengua hara heltzen, baiña espaziuaz jabetu arren, ez zittuan grabauak aurkittu. Berak azaldutakuarekin jarraitu zetsan Antxieta alkarteko Xabier Maiz kidiak -honek beronek aurkittu zittuan Danbolinzuloko pinturak- eta, kaskuaren argixa albotik zuzenduta, aurkittu zittuan aittatutako grabauak. Zortzi figura nabarmentzen dira, *"oso garbi: zaldixa, zaldi-buruñ, oreiña, uroñ eta bisontia tartian".*

Grabauak suharri zorrotutakuekin eginda-kuak dira, *"pasatzerakuan markia eginda. Datatzeko, figuraren estiluari erreparatzen detse eta, zenbat eta marrazkixak izan, orduñ eta zaharraguak dira".*

## Zelako garrantzixa daka?

*"Panoramia betetzen dau",* Arizagaren eritxian, arkeologuak deitzen daben "euskal hutsuniari" erantzunez. *"Hamen Asturiasen eta Kantabrian baiño askoz aztarna gitxiago aurkittu dira eta susmuak dagoz neurri berian egon bihar dirala",* diño Iñigok. Hamengo arkeologuen eta espeleologuen arteko konexiño ezari botatzen detse horko errua. Kobari *"bere magia puntua"* aurkittu detsa espeleologuak, *"argi frontala itzalitta bistarako gehixago nabarmentzen diralako grabauak".* Kobia oso txixixa bada be, siñestuta dago orduko sasoiakuak han bizitzen egon zirala: *"Ederki orientatuta dago eta, han egon giñan bittartian, eguzki izpiak lagun egin genduzan, Ekain ikutu be ez zebenian egitten".*

## Zeintzuk izango dira hurrengo urratsak?

*"Lehendik aurkittutako kobak hobeto miazia, aztarnategixak pazientzia haundixarekin*



**Iñigo Arizaga, kasko laranjarekin, goixan eskuma aldian.**



*begiratzia*", diño Antxieta alkarteko eibartarrak. Konbentzituta dagoz-eta Kantabrian eta Asturiasen aurkittutakua parian, egon badaguzela antxiñako artisten lanak; hori bai, begibistatik kanpo. "Badago lana guztiak errepasatzen bakarrik".

Baiña, administraziñuak nahikua laguntzen dau? Aurkikuntza kaleratzeko, juan zan eguneko agerraldittik kanpora badator dirua erakundietatik? "Gero eta diru gitxiago dago halako gauzetarako, hor ez dakitt aldaketa asko izango dan". Baiña aurkikuntzon alde positibua gero babestiarena da Arizagarentzat. "Oin behintzat itxita egongo da eta babestuta. Arkeologuak be proiektuak aurkezteko aukeria izango dabe". Ekainberri holan egin zan, originala babesteko, eta azken aurkikuntzak "ezinbestekotzat" jotzen dittu eibartarrak Ekainguk bere testuinguruan kokatzeko. Halako kopixarik ez dau uste egingo danik Erlaitzeuarekin: "Faksimilik igual ez dau merezi. Santimamiñen-eta egindako erreprodukziño antzerakua akaso".



Suinaga, Berasategi, Divasson eta Arizaga.

## Desanimatzen ez dan laukotia

EIBARKO KLUB DEPORTIBUAK BESTE HAINBAT BATZORDEREN ARTIAN ESPELEOLOGIARENA DAKA ASPALDITTIK. Eta hor lau "inkonbustibleak" jarraitzen dabe biharriari urtiak juan eta urtiak etorri: **Aitor Suinagak, Jose Javier Berasategik eta Alperda Divassonek** osatzen dabe, Arizagarekin, talde hori. "Sasoiren arabera urtetzen dogu, udaberriarekin ixa astero. Leize barrixak billatu, jaitsi, topografiak altxatu, GPS koordinada barrixak hartu (bestela, arazuak izaten dittugu toki batzuk barrio billatzeko)... holakueta gabiz". Erlo eta Lastur aldian dihardue batez be, "talde bakotxak bere zonak izaten dittualako". Kataluñiako eta Valentiako taldiekin be jardun izan dabe "oporretan". Jende gaztiagua atzian ez izatiaren arrazoa "espeleologixaren glamour faltan" ikusten dau Iñigok: "Larrantian, basatza, bustitta askotan... Bilbon Euskal Herriko Espeleologuen Taldiak antolautako hitzaldixetan izan gara oin dala gitxi eta 70 bat lagun izan giñan, ez da gitxi... baiña burusoil asko zan tartian, gazterik apenas". Lehen kobazulo baten sartu eta gaba osua be pasau izandakua da laukotia, baiña normalian 40.80 metroko leize bat goiz batian ikusten dabe, "barkaltzeko libre". Arriskua oso ondo kontrolau leikiela esaten dau konbentziduta, "teknika egokixa erabillitta eta kontuz jardunda; espeleo-sokorro simulakruak be egin izan dittugu". Aixako koba da eurentzat "la joya de la corona" eta Aitzbeltzera jaisten **Juan San Martin** izan zala lehelengua esaten desku: "180 metroko jaitsieria da eta lehelengua eskala batekin egiñ eben, denbora askuan Espaiñiako jauzi haundixena izan zana". Toki bitxixak ikusi dittue urtietan, Leizetan aurkittutako "kalzita kristalaz josittako espaziu, flipatzekua", estalaktita eta halako beste hainbat gauza ikusgarriekin batera. Fauna aldetik be, "elefante, rinozerronte, hiena edo lehoien hezurak aurkittu dittugu eta halako batzuk be pasau detsaguz Aranzadiri". Eibar inguruan dagozen kobetan, "koral fosillak izan biharriari, pelagikuak aurkittu dittugu, sakonera haundixaguan sortutakuak. Beste kuriosidade geologiko moduan, Zumaixako flyscean aurkittutako dinosaurioak desagertu ziran estratu berak dagoz Urko aldian". Halakuak eta beste asko jaso dittu laukotiak, topografixia egin eta baita hainbat gauza guretzako ezezagunak batu. Badake, gaiñera, hori biharriari danon eskura jartzeko asmua, urtietan ezkutuan egon danaz bestiok be jabetzeko.



Funeraria Ehorztetxe  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



**● tartak**  
**● enkarguak**  
**etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
**☎ 943 20 79 73**



Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko  
**JANTZIAK**

ume eta gazte  
**Kopina moda**

 [kopinamoda](https://www.facebook.com/kopinamoda)  
San Agustin, 3  
943 204 181



**Musika txikitatik arnastu duten lagun minak dira. Nuria Robleño (pianojolea) eta Sofia Machin (abeslaria) taldea osatu berri dute. Izena? Oraindik ez dakite. "Nuria and Sofia" izenpean irekiko dute Youtube kanala haien grabaketak igotzeko. "Ez ditugu bideo kutreak igo nahi, profesionaltasunez hasi nahi dugu", horrela, lagundu nahi dieten bideo sortzaile adituei mezua bidaltzen diete. Bien bitartean, ...eta kitto!-ko sare sozialetara aurrerapen txiki bat igo dugu.**

**- Nola bururatu zitzaizuen taldea sortzea?**

Lagun minak izan gara beti eta musika kontuetan ibili gara biok. Musika Eskolan ere elkarrekin ibili gara eta, azkenean, elkarrekin abesten hasi ginen.

**- Afizio moduan planteatzen duzue ala badago profesionalki dedikatzeke asmoa?**

Afizio moduan egiten dugu, badakigulako musikatik bizitzea oso zaila dela. Horregatik, gure asmoa bideoak grabatzea da, Youtube kanala sortu eta bertara igotzeko. Tabernetan jotzen ere ahaleginduko gara, ordubeteko kontzertuak egin nahi ditugu. Eta, dirua lortuz gero, maketa bat grabatzea pentsatu dugu. Baina beti hobby moduan.

**- Zuek sortutako abestiak ala besteak eskaintzen dituzue?**

Momentuz besteen abestiak jotzen ditugu, baina gure asmoa abesti propioak sortzea da, nahiz eta oso zaila izan.

**- Jotzeko tokirik badaukazue?**

Entsegu tokia bata edo bestearen etxea dira, edota Musika Eskola. Ez daukagu entsegu lokalik.

**- Eta astean zenbaten egiten dituzue entseguak?**

Ez daukagu ordu kopuru zehatzik. Denbora daukagunean elkartzen gara. Lagun minak izanik, edozein egokia da. Baita klasekoa ikasteko elkartzen garenean ere, azkenean pianora jotzen dugu (barreak).

**- Noiztik zabiltzate musikan?**

Betidanik! Txiki-txikitatik gabiltza musika kontuetan. Nik (Sofia) alboko flauta jotzen nuen eta, denborak aurrera egin ahala, Eibarko Koro Gaztean hasi nintzen, baita Musika Eskolako talde batean ere. Nuriak pianoa jotzen du txikitatik eta orain gitarrarekin hasi da, kontzertuak entretenigarriagoak izan daitezten.

**- Zer diote honi buruz gurasoek eta lagunek?**

Gurasoak oso pozik daude. Haiek ere musika zaleak dira. Gure adina zutenean kontzertuak ematen zituzten eta oraindik euren taldeekin jarraitzen dute biek, bai nire aitak bai Sofiarenak. Nire anaiak ere talde batekin jardun zuen unibertsitatean hasi baino lehen. Eta lagunak aldetik, pentsa! Daukagun audio grabaketa lokalean jarri genuenean harrituta gelditu ziren. Artista baztuk garelako diote!



Nuria eta Sofia  
(MUSIKARIAK)

**"Kontzertuekin dirua lortuz gero, maketa grabatu nahi dugu"**

**Isasi, 31**  
**943 207 737**  
Etorri!  
Zure etxian  
egongo zara!!  
KAFETEGIA OKINDEGIA  
**SUTLINDO**

Eibar-Barça partidurako  
**2 SARREREN ZOKKETAN**  
sartuko zara

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
**104,0 FM**

*Izadi*  
LORADENDA  
- Lora eta landare natural  
eta lehorrak  
- Ezkontzetarako lorak  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

## Lanbide Heziketako Azoka bigarrenenez #ABIAN

Datorren astean, martxoaren 11n Armeria Eskolako patioan zabalduko duten Abian Debarreneko II. Lanbide Heziketa Azoka aurkezteko ekitaldia hartu zuen martitzen goizean Debegesak. Hiru egunetan, martxoaren 11, 12 eta 13an zabalduko duten azoka eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxe guztiek (Armeria Eskolak, IMH-Makina Erremintaren Institutuak, Meka Lanbide

Eskolak, Mutrikuko Institutuak, Uni Eibar Ermuak eta Eibar eta Ermuko PCPI-ak) eta Debegesa Garapen Agentziak elkarlanean antolatu dute, lehen edizioak izan zuen harreara onarekin animatuta. Ekimenak, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesaz gain, eskualdeko hainbat erakunde eta enpresaren laguntza ere jaso du: Ermuko Izarra Fundazioa, IK4-



LHko ikastetxe guztiek hartuko dute parte azokan. SILBIA HERNANDEZ



Debarrenean eskaintza oso zabala dago, 33 espezialitatekin.

Tekniker, Danobat Group, Etxe-Tar, Epc, Alfa, Correanayak, Grupo Egile, Agme, Alcorta, Urkotronik eta La Caixa modukoek aurtun azokarekin bat egiteari garrantzi handia eman diote antolatzaileek eta, aurkezpenean azalduko jarraituta, "lankidetzan honek ondo erakusten du Lanbide Heziketaren eta enpresen

arteko harreman zuzena eta kolaborazio-sarea".

Ekitaldian aurreratu zuten, "Debarreneko Lanbide Heziketaren erakusleihu aparta izango da eta, arrazoi ezberdinengatik, azoka herritar guztientzat interesgarria izango da zalantza barik. DBH eta Batxilergoko azken urteetako ikasleei, heziketa zikloetako erdi eta goi mailako azken urteetako ikasleei, gurasoei, heziketa zentroetako eta erakunde publiko nahiz pribatuetako irakasle, orientatzaile eta formatzaileei, ekintzaileei, enpresa eta erakundeei, langile aktibo eta langabeei eta, oro har, herritarrei, lanbide heziketan interesa duten guztiei zuzendutako azoka da".

Debarrenean Lanbide Heziketa arloan dagoen eskaintzaren aberastasuna behin baino gehiagotan azpimarratu zuten aurkezpenean: "Guztira 33 espezialitate desberdin eskaintzen dira, guztiak ezberdinak eta ikasturte honetan 1.471 ikasle daude matrikulatuta". Hiru egunetarako egitarau zabala osatu dute antolatzaileek, doako tailer, mahai-inguru eta hitzaldiekin eta parte hartzeko interesa dutenek aurrez izena eman beharko dute, 943820110 telefonora deituta edo pymes@debegesa.com helbidera idatzita. Informazio guztia www.debegesa.eus helbidean eskuratu daiteke.

### EGITARAU

#### - Martxoak 11, eguaztena

10.00.- Inaugurazio ekitaldia, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Debarreneko Udalak eta eskualdeko enpresak.

10.30.- Mahai-inguru: "Lanbide Heziketa, enplegua helburu". Parte-hartzaileak: **Ricardo Barkala** (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Lan Sailburuordea), **Jon Peli Uriguen** (Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Diputatuak), **Patricia Tames** (Invema-AFM-ko Zuzendariaren ondokoa), **Eneko Astigarraga** (Codesyntax-eko gerentea), **Begoña Gutierrez** (Egogain Gerontologia Zentroko Zuzendaria) eta **Patxi Samaniego** (Etxe-Tar enpresako Berrikuntza Zuzendaria).

16.00-17.30.- Hitzaldia: "THERE IS NO BOX: Berrikuntza eta sormena, merkatuaren joera berriak", **Pep Torresen** eskutik.

17.00-18.00.- Hitzaldia: "Gaitasuna Egiatzatzeko Egitura", **Lanbideren** eskutik.

17.30-19.00.- Jardunaldia: "Internetek lagundu gaitzake lana aurkitzen?". Erreputazio digitala eta nola hobetu lana bilatzeko orduan. **Mondragon Unibertsitateko Miguel Fernandez** eskutik.

#### - Martxoak 12, eguena

10.00-11.00.- Tailerra: "Lan-bilaketa Interneten". **Sartu**, Lanbideren zentro laguntzailearen eskutik.

11.00-12.00.- Tailerra: "Nola egin zure bideocurriculumak". **Daiteke**, Lanbideren zentro laguntzailearen eskutik.

12.00-13.00.- Tailerra: "Lana bilatzeko formula berriak". **Ermuko Udaleko Lanerako Enplegu-Agentziaren** esperientzia eta horretan izena ematea, zure curriculumak hautaketa prozesuetan parte har dezan.

16.00-17.00.- Tailerra: "Enplegurako pilula positiboak". **Langabezia** edo lana hobetzeko egoeran dauden pertsonentzat enplegua lortzen laguntzeko erremintak. **Daiteke**, Lanbideren zentro laguntzailearen eskutik.

18.00-19.00.- Gurasoentzako jardunaldia: "Nola lortu gure seme-alabek erabakiak hartzeko orduan ardurak bereganatzea?". **Incess/IMH-ko Goizalde Santamarinaren** eskutik.

#### - Martxoak 13, barixakua

09.00-10.00.- Tailerra: "Nola sortu zure negozio-idea propioa?". **Debegesako Enpresa-proiektu** berrientzako zerbitzuko **Vanesa Hortasen** eskutik.

11.00-12.30.- Jardunaldia: "Urratsbat programa. Esperientziak".

# + OSASZUN GODA

## Dentistak



**Arat**  
Hartz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU  
INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

 Clinicas dentales UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Tel: 943 20 18 51

RPS: 53/13



**bista eder**  
clínica dental - hartz klinika

**Asko dira**  
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE  
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82



Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

info@clinicacalbeton.com



**Pedro Etxebarria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hortz-Klinika  
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02



**IRAZABAL**  
clínica dental

Irribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicalrazabal.com



**hortz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**  
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.marladoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA



- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Uniitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

**HEMEN ZURE  
TOKIA izan  
nahi baduzu ...  
... deitu  
943-206776  
telefono  
zenbakira**

## Fisioterapia



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
**ARRAGUETA, 20**  
TEL: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.  
OSTEOPATIA  
NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

## Okulistikak



**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera  
943 20 19 82



**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologí Klinikia

**Presbiziaren kirurgia.**

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOA  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOA**

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak



**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa

**Coro Ortíz de Urbina**  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa  
- Master P.N.L.  
- Trainer **Tel. 675 70 68 07**

**Maialen Hernandez**  
PSIKOPEDAGOGOA

- Umeak, Nerabeurrekoak, Nerabeak  
- Hiperaktibitatea, Autoestimua,  
Motibazioa, etb. **Tel. 605 75 75 06**

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

..... (Ume eta helduendako) .....

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**UME ETA HELDUENDAKO**  
PSIKOLOGIA  
KABINETEA



**Arrate Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO  
PSIKOTERAPIA

Bidebarrieta, 27-B (3. atea)  
943 20 22 66

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk.....EIBAR  
Zuberoa, 4 .....ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa



**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Tef. 943206823 eta 686859023

## Eibarko Duatloia jokatu da bihar

Gure herriko probaren 24. edizioan, gainera, Gipuzkoako Duatloi Sprint txapelketa izango da jokoan, aurtengo Euskal Herriko duatloi zirkuitoko laugarren proban. Lasterkariak 5 kilometro egingo dituzte antxintxiketan, jarraian 19 bizikleta gainean eta, amaitzeko, beste kilometro bi eta erdi antxintxiketan berriro. Proba 16.45etan hasiko da neskentzat, eta handik hiru minutura mutilen kasuan. Lasterketa-aren muina Untzaga plazan kokatu da, han izango dira-eta irteera, helmuga eta boxeak. Oinezko lasterketak herriko kaleetatik prestatutako zirkuitoan

egingo dira (lehen atalean hiru itzuli emanez eta bigarrenen bakarra) eta bizikleta gainekoan bariantea zeharkatu dute.

Aurreko zapatuan Mungiako duatloian izan ziren Delteco Eibar Triatloi Taldeko hainbat ordezkari eta, ohikoa denez, Txomin Osoro junior onena izan zen (16.a sailkapen absolutoan), Julen Teran bigarren kadete onena (47.a absolutoan) eta Iñaki Konde bigarren beternoen 3 mailan. Roberto Gartzia 53.a izan zen, Andoni Mayo 70.a, Mikel Laskurain 93.a eta Juanjo Romero 112.a.



Eibarko proban Gipuzkoako Duatloi Sprint txapelketa izango da jokoan.



## Iñigo Elozegi nagusitu zen Udaberri Sarian

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako junior mailako lasterketan, AutoNervion-Renault taldeko txirrindularia esprintean nagusitu zitzaizen Pablo Benito (Tinlobi) eta Oier Ibagureni (Atracciones Sanz). Hirukotearen atzetik helmugaratu zen Miguel Angel Santamaria, 13 segundora, eta minutu erdira sartu zen Ampo taldeko Mikel Paredes. 106 txirrindulari abiatu ziren Untzagatik eta euretako 70ek bete zituzten probaren 78 kilometroak. Irabazleak 37'26 kilometro orduko batzabestekoa egin zuen. Taldeka Andoiango izan zen onena, Baque-Ibinarriagaren aurretik: zortzi segundoko tartea izan zen bien artean.



## Eibartarrek ere parte hartu zuten ia 4.000 korrikalari izan zituen Lilatoian

Aurreko domekan Donostian jokatuak Lilatoian 26. edizioan inoiz baino parte-hartze handiena izan zen eta euretako 3.613 iritsi ziren helmugara. Aiora Jaka izan zen Atletico San Sebastianek antolatzen duen probaren irabazlea, 18 minutu eta 52 segundoko denborarekin. AINARA ARGOITIAren aldameneko argazkietan ikusi dezakenez, gure herritik joandako askok ere egin zuten antxintxiketan.



## Debarreneko txirrindulariek gonbidapena lortu dute Asteasurako

Elite eta 23 urtetik azpiko txirrindularitza denboraldia hasi berria, maila horretan debutatu duten Debarreneko txirrindulariek egindako lan onak bere saria jaso du eta, horrela, Espainiako Koparako puntuagarria izango den Asteasuko lasterketan izango dira domekan. Aurreko asteburuan Zumaian eta Ereñon izan ziren Klub Deportivo txirrindulariak, guztiz desberdinak izan ziren bi probetan. Lehenengoan, zailtasunik gabekoa izanik, tropel handia izan zuen batera helmugaratzen. Bigarrenen, ordea, irten zuten 125 txirrindularitik bakarrik 49k helmugaratu ziren. Eta, horietako hiru (Julen Izagirre, Koldo Armendariz eta Asier Taboada) Debarrenekoak. Taldeka zortzigarren postuan amaitu zuen Eibarkoak.



Gogotsu hasi du denboraldia Juanjo Sebastianek zuzentzen duen taldeak.

## Eibarrek neurketa garrantzitsua izango du gaur Levanteren aurka 20.45etan

Athletic-en aurka ere galtzaile amaitu zuten Garitanoren mutilek eta, egoera zaildu aurretik, gaur Valentzian aukera izango dute lasaitasunaren bidera bueltatzeko. Bizkaitarren aurkako partiduan ere 1-0koa izan zen berriro eta taldeak erreakzionatzeko freskotasan eza erakutsi zuten. Horri aurre egiten asmatu beharko du gaur jaitsiera postuan dagoen Levanteren aurrean, azken hau eibartarrendik 5 puntura baitago. Denboraldia amaitzeko 13 partidu falta dira eta, eurretatik, zazpi Ipuruan jokatu beharko dira, horietako lehena Bartzelonaren aurka hilaren 14an. Klubari laguntzeko jardunaldi erdia izango da eta abonatuak Ipuruako txarteldegitik pasa daitezke (goizez, 10.00etatik 13.00a arte, eta arratsaldean, 16.00etatik 20.00etara) hilaren 11ra arte. Jasotzen ez diren sarrerak hurrengo egunean, 12an, jarriko dira salgai besteentzat.



Aita-semeen arteko bi lehia izan ziren ikusgai domekako derbi egunean. LEIRE ITURBE

## Ander Izagirre igerilaria Espainiako txapelketako hiru finaletan



Aurreko asteko eguenetik domekara arte Cadizen jokaturako igeriketako Espainiako neguko txapelketan Ander Izagirre izan zen Urbateko ordezkari bakarra eta lehiatutako hiru probatan heldu zen finaletara. Libre erako 50 metroan lortu zuen posturik onena: 6.a izan zen, 52"65 denborarekin. 100 metro librean 9. postuan amaitu zuen eta 200 metrokoan hamargarrena.

## Herriko judokek asteburu betea izan zuten

Zapatuan Vall d'Hebron-eko kiroldegi olinpikoan jokaturako "Ciutat de Barcelona" nazioarteko torneoan 280 kirolarik hartu zuten parte, tartean Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Holanda, Andorra eta estatuko hainbat komunitate. Nekane Muguruza 7. sailkatu



zen eta Madrilen jokaturako diren senior mailako Espainiako txapelketetan izango da. Egun berean Hernanin jokaturako Gipuzkoako txapelketan, Iker Martinezek brontzeko domina eskuratu zuen. Eta domekan Tolosako Usabal kiroldegian izan ziren aipaturako Muguruza eta Martinez, Hegoi Estebanekin batera, graduz pasatzeko 1. mailako ikastaro teknikoetan.



## Hainbat baja izanda ere, Somos Eibar erraz nagusi

Urdaneta sailkapeneko azkenari 21-30 irabazita, Fernando Fernandez mutilek lidergoari eusten diote, Anaitasunako nafarrek puntu bakarrera jarraitzen duten bitartean. Azken bi hilabeteetan baja asko izan dituzte eibartarrek eta, Urdanetaren aurka ere, Jokin Alberdik, Aitor Telletxeak eta Mikel Larrañagak ezin izan zuten jokatu: Xabi Lukek eta Lander Casadok bai jardun zutela, herrenka ibili arren. Bihar 19.00etan Quiron Askartzako bizkaitarrak hartuko dituzte Ipuruan, irabazteko neurri aiposean. Azken jardunaldiko emaitzekin, hirugarren sailkatua eibartarrendik sei puntura dago orain: Santoña da hori, Tolosak galdu egin baitzuen.

## motzean

### PILOTA

Astelena frontoiak pilota profesionalaren jaialdia hartuko du domekan 17.00etan. Gainera, binakako txapelketa nagusiko partidua izango da jokoan, Bengoetxea III.a eta Aretxabaleta Urrutikoetxea eta Beroren aurkako norgehiagoka hain zuten. Aurretik, Apezetxea eta Merino nor baino nor izango dira Aritz Lasa eta Irustarekin lehiatzen. Eta, amaitzeko, Gorka eta Larrinagak Mendizabal III.a eta Urruzola izango dituzte aurrez-aurre.



### ESKUBALOIA

Aitor Etxaburu eibartarrak Bera-Berako entrenatzaile izateari laga dio, Donostiako taldeak eguaztenean jakitera eman zuenez. Eibartarrak jokalaririk moduan goi mailako tituluak lortu eta gero, Bidasoa Irun entrenatu zuen eta azken urteotan Iruñeko Anaitasuna, Asobal Ligara igotzeraino. Oraingoa zen bere lehen denboraldia Donostian.



## JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO "Partehartzea ahalik eta zabalena izatea nahi dugu"

*Badira urte batzuk Jaixak Herrixak Herrixandako (JHH) sortu zala, "jai herriko, euskaldun, parekide eta parte-hartzaileen alde". Gazte taldearen ekimenari esker herriko jai nagusietan, sanjuanetan eta sanandresetan, egitarau "ofizialek" kanpora gero eta jarduera gehiago antolatzen dira eta, gainera, guztietan neska-mutil talde polita batzea lortu dute. Hala ere, elkartearen antolakuntza, balore eta bestelako inguruan hausnarketa egiteko unea ailegatu dela uste dute eta horretarako prozesua egin gutxi barru zabalduko dute.*

### **- Zer dela eta erabaki duzue hausnarketa prozesua hastea?**

Gure bileretan, Jaixak Herrixak Herrixandako osatzen dugunok behin baino gehiagotan egin dugu berba elkartearen antolaketari buruz, ideia berriak ekarriko dituen jendea sartzen ez bada oraun gauden puntu berean, ez atzera ez aurrera geratuta gelditzeko arriskua dagoela pentsatzen dugulako. Egia da antolatzen ditugun ekitaldietan jende mordoak hartzen duela parte, baina jai batzordean ez da gauza bera gertatzen. Horrelako gaiak aztertzeke erabaki dugu prozesua zabaltea eta, horretarako, hiru saio egingo dira martxoan (13, 20 eta 27an), hirurak Arrate Kultur Elkartearen 18.30etan hasita.

### **- Nolakoak izango dira saioak?**

Lehen saioan, martxoaren 13an egingo den batzarrean baloreak definitzen ahaleginduko gara: JHH-ren sorreraren oinarrian "parte-hartzaile" adjetiboa dago, beste balore batzuk definitzen dituzten adjetibo gehiagorekin batera, beraz, besteak beste balore horiek nola bete daitezkeen aztertu beharko dugu. Bigarren saioan, berriz, elkartearen antolakuntza moduari eta besteekin dauzkagun harremanei erreparatuko diegu batez ere.

### **- Zer lortu nahi duzue prozesuari esker?**

Partehartzea ahalik eta zabalena izatea gustatuko litzaiguke, antolakuntza jarduteko jende berria erakartzea eta elkartearen filosofian dagoen "partehartzea" bermatuta, jendeak hori bereganatu eta bere egitea. Saioak jende guztia erantzuten egongo dira zabalik, baina horrekin batera hainbat lagun eta elkarterekin harremanetan ipini gara, denon artean jai batzordea berdefinitzeko eta bideoa ere egin dugu, sare sozialen bidez zabaldu eta jendea prozesura erakartzeko asmoz. Eta prozesua amaitu eta jarraian, jakina, sanjuanak antolatzeko beharrean hasiko gara.



## Pianojoleak pozarren buelatu dira Andoaindik

Aurreko asteburuan hamargarrenez egindako Andoaingo Piano Lehiaketara joandako eibartarrak pozarren bueltatu ziren etxera eta Musika Eskolan Casilda Txurrukarekin ikasten dutenek lehiaketan eskuratutako dominak jantzi zituzten martitzenean, aldamenen ikusten duzuen talde argazkirako. Edizio honetan, gainera, ikasle gazteei ez ezik antolaketaz arduratzen direnei ere errekonozimendua egin zieten. Domekan Txixu Castro, Myriam Ulanga, Tere Laspiur, Isabel Laspiur eta Audra Almanaytite, jaialdia antolatzen duen Seiasle elkartearen kideei ezusteko ederra eman zieten, jaialdiaren inguruan batutako irakasle eta familiek euren beharra eskertzeko omenaldi hunkigarria egin zieten eta.



## Andrei eskainitako kontzertua berezia etzi

Domeka Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Cielito Musika Bandak kontzertu berezia eskainiko du Coliseoan, 12.30etatik aurrera. "Feminista naiz" aurtengo goiburuaekin bat eginda eta Carlos Sanchez Barbaren zuzendaritzapean, emakumeek interpretatu edo moldatutako piezekin osatutako egitarauari jarraituko diote: "La puerta grande" (pasodoblea, Elvira Checa), "Ronda en fiesta" (pasodoblea, Carmen Benitez), "Antorcha olimpica" (martxa, Carmen Benitez), "Eibar KE-aren himnoa" (Miren Olaberena), "Nessun Dorma!" (pasarte, G. Puccini, Leire Aldalur bakarlariak), "Falla-ri omenaldia" (bariazioak, M. de Falla, Ainhoa Urkizu bakarlariak), "Devuelveme el rosario de mi madre" (Peruko balsa, M<sup>a</sup> Dolores Praderarena), "Yo no soy esa" (Mari Triniren kantua) eta "Itxaropena" (kantua, Su Ta Gar). Egitaraua emakumeek interpretatu edo moldatutako piezekin osatu dute.



## Bertso Astea Kulturallean

Arrate Kultur Elkarteak, Kultu tabernak eta Hankamotzak bertso eskolak Bertso Astea antolatu dute eta aurreko edizioetan oso harrera ona izan duen formatuari eutsiko diote oraingoan

**BERTSO ASTEAK**  
KULTURALIAN

**MARTXOAK 11, 19:00ETAN**  
TABERNAKO SAIOA

JULEN ZELAIETA, IÑIGO MANTZIZIDOR, ELI PAGOLA

**MARTXOAK 13, 21:00ETAN**  
BERTSO AFARIA

ANDONI EGANA UNKI ITURRIAGA

AFARIARAKO TIBETAR KULTUN 23€-TAN  
BAZKIDE, IKASLE ETA LANGABETUEK 19€

ere: bi bertso saiok eta tabernan ikusgai ipiniko duten aurreko urteotako argazkiekin erakusketak osatuko dute egitaraua. Lehen saioa, tabernakoa, datorren eguaztenean eskainiko dute Iñigo Mantzizidor "Mantxi" zaraztarrak, Julen Zelaieta beratarrak eta Eli Pagola hernaniarrak, 19.00etatik aurrera Kultun. Bertsolariek Jokin Bergarak tabernan jarritako gai desberdinei abestuko diete.

Eta bigarren saioa martxoaren 13rako (barixakurako) antolatu dute: "Aurreko urteetan bertso bazkaria egin da elkarteko lokalean, baina aurten tabernan bertan afaria egitea pentsatu dugu". Afaria 21.00etan hasiko da eta bertsoan Andoni Egañak eta Unai Iturriagak egingo dute, Jon Mikel Mujikak emandako gaiet jarraituta. Bertso afarirako tiketak Kultun daude salgai (23 eurotan; 19 eurotan elkarteko bazkide, ikasle eta langabetuentzat). Egitaraua 19. Korrika Kulturalaren barruan antolatu dute.

## Petti eta Kokein zuzenean

Gaur gauean, 22.30etan hasita, Petti bakarleri beratarra eta Kokein eibartarrak kontzertu akustikoan entzuteko aukera egongo da Beleko tabernan. Pettik amerikar sustraiak dituen rocka egiten du eta bost bakarkako disko kaleratu ditu, gehienak Gaztelupeko Hotsak zigiluarrekin. Horrez gain Anari, Txuma Murugarren, Rafa Rueda edota Barrence Whitfield abeslariarekin batera beste hainbat lan eman ditu argitara. Eta etxean joko duen Kokein taldearen musikak, berriz, ez du aurkezpenik behar, herrian ondo baino hobeto ezagutzen ditugu eta.



## Amatasun-ereduak literaturatik aztergai

Datorren eguaztenean, 18.30etan, bereziki emakumeei zuzendutako literatur saioa hartuko du Portaleko areto nagusiak, Martxoaren 8aren inguruko egitarauaren barruan antolatuta. Saioaren ardatza Dolores Redondoren "Baztango trilogia" ("Zaindari ikusezina", "Hezurren ondarea" eta "Eskaintza ekaitzari") azken fenomeno literarioetako batek osatuko du eta Skolastika elkarteko Josune Muñoz-ek, trilogia horretaz baliatuz, amatasun-ereduan sakontzeko proposamena ekarriko du. Gaztele-raz egingo den saioak pare bat orduko iraupena izango du.

## Martxoaren 8-ko lanak Topalekuan

Arrate Kultur Elkarteak Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira antolatu duen erakusketa kolektiboa gaur arratsaldean, 19.00etan zabalduko dute Topalekuan. Martxoaren 8arekin loturaren bat duten artelaren artean orotariko lanak daude: olioia, zeramika, pastela, akuarela, ikatza... Artelaren bat ikusgai ipini duten artistak, berriz, hauek dira: Arantza Alvarez, Maite Arriaga, Charo Baglietto, Marian Basurto, Loli Blanco, Arrate Etxeberria, Elisabet Eguren, Esther Fernandez de Maruri, Esther Galarza, Oscar Garcia, Natalia Garrido, Oihana Lasuen, Esteban Oroz, Arrate Osoro, M<sup>a</sup> Carmen Piriz, Ana Saiz, Jone Telleria, Maite Zubia eta Tarteka Sormen Espazioa. Hilaren 15era arte ikusgai egongo den erakusketa astegunetan 19.00etatik 21.00etara zabalduko dute eta asteburuetan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



## laburrak

### PINKTONES-EN KONTZERTUA

Martxoaren 21ean, 20.30etan Pinktones taldearen kontzertua hartuko du Coliseoak. Pink Floyd Show izenburuko emanaldia taldeak martxan duen biraren barruan antolatu dute eta sarreraren aurrealmentarekin hasita daude (25 euro): interneten, kutxabank.es helbidean; Eibarren, Birjiñape, Trinkete, Portalea, Terraza eta Caserio tabernetan; Elgoibarren, Lanbroan; Ermuan, Caperosen; eta Durangon, Gambrinusen.



### ANTZERKI-PROIEKZIOA

Zapatuan "Caesar&Cleopatra" antzerki klasikoaren emanaldia eskainiko dute Coliseoan, bertso digitalean. Ikuskizunerako sarrerak 11 euro balio du (9 euro deskontuarekin).

# Otsailaren 27tik martxoaren 6ra artekoa

## 38 ANTZERKI JARDUNALDIAK

### EIBAR 2015

Otsaila-Martxoa



**Martxoak 6** | **barixakua** | **20.30etan** | **Coliseoan** | **85 minutu** | **15 euro**

### De mutuo desacuerdo (Pentacion -MADRIL-)

ZUZENDARIA: QUINO FALERO / ANTZEZLEAK: TONI ACOSTA eta IÑAKI MIRAMON / MUSIKA: MARIANO MARIN

Lan hau XXI. mendean garatzen ari diren familia berrien argazkia da. Komedia bizi eta bizkor baten aurrean gaude, oso garrantza, baina ironia dosi handiarekin gozotua. Nabaria da Woody Allenen eragina. Argumentua umorearen ikuspegitik garatzen da, baina familia bat haustean sortzen den gatazkaren gordintasuna ezkutatu gabe. Bi antzezle arrakastatsuren maisu-maistra lana.

**Martxoak 7** | **zapatua** | **20.30etan** | **Coliseoan** | **113 minutu** | **11 euro**

### El hombre almohada (Ilmaquinario Teatro -OURENSE-)

ZUZENDARIA: TITO ASOREY / ANTZEZLEAK: MELANIA CRUZ, FERNANDO GONZALEZ, LAURA MIGUEZ eta FRAN LAREU

ESZENOGRAFIA: LUIS IGLESIAS "LUCHI"

Gizakion garapenean indarkeriak duen eragina aztertzen da ikuskizun honetan. Barre algaratik beldurrera instant batean eramaten gaituen lanean, erantzun anitzak dituen hausnarketa sakona egiten da. Intrigaz eta umore beltzez betetako giza eduki handiko ikuskizunean, egia eta gezurra, fikzioa eta errealtatearen arteko mugak desegiten dira amesgaizto barregarri baten bezala.



**Martxoak 8** | **domeka** | **20.30etan** | **Unibertsitatean** | **80 minutu** | **15 euro**

### ¿Por qué los mayores construyen los columpios encima de un charco? (Prod. El Espectador -MADRIL-)

ZUZENDARIA ETA ANTZEZLEA: LUIS PIEDRAHITA

Luis Piedrahitaren azken ikuskizunetakoan, bere umore xehe, xume, azkarra eta bizia bizitzaren zehar egiten duen bidaiaren zerbitzuan jartzen du, bertako protagonistak maleten gurrpil, mandarinen pegatina edo eulien karies bihurtuta. 1999an El Club de la Comedia lehiaketa irabazi zuen egileak berak esaten du bere umorea ez dela hausnarketarako aitzakia baino.



**Martxoak 11** | **eguztana** | **20.30etan** | **Coliseoan** | **90 minutu** | **11 euro**

### La puta enamorada (Euroscena -MADRIL-)

ZUZENDARIA: JESUS CASTEJON / ANTZEZLEAK: EVA MARCIEL, JAVIER COLLADO eta Federico Aguado

MUSIKA: LUIS DELGADO

Hizkuntza xumean eta umore giroan garatzen da akzioa. Fikzio historikoarekin jolas egiten da, betiko antzerki klasikoa gure egunetara hurbilduta, antzerkia beti ikuskizuna izan behar dela gogoratzen digun jolasean. Telebista, zinema eta antzerki munduan eskarmentu handia duten hiru antzezleek distira berezia ematen diote testuari. Arrakasta handia lortzen ari dira hasitako bira luzean.



**Martxoak 13** | **barixakua** | **20.30etan** | **Coliseoan** | **55 minutu** | **5 euro**

### Las Bellas de Easo (Asociacion Musikomeria -GIPUZKOA-)

ZUZENDARIAK: AINHOA AJERBE, KARLOS NQUEMA eta Aintzane Crujeiras / ANTZEZLEAK: IRENE HERNANDO, AMAIA ENETERREAGA, ISABEL GARCIA, UXOA NIETO eta LANDER BRIONES

Musika ikuskizun bizi, gazte eta erakargarrian ezagutuko ditugu bizimoduz aldatzea erabaki duten lau emakume gazteen gorabeherak. Neska horiek konpainia berria osatu, ikuskizun bat sortu eta, argi eta soinu teknikari baten laguntzarekin, mundua ikuspegi desberdinetatik ezagutera eramango dien bira hasten dute. Irene Hernando Eibarko antzezle, dantzari eta kantaria da protagonistetako bat.

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MARTXEL, eguenian bi urte bete zenduaz-en eta. Patxo haundi bat danon eta, batez be, Inhar-en partez.



Zorionak, NAIA, atzo 10 urte bete zenduaz-en eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Jonen partez.




Zorionak, LUR Arriola, neska haundi, hillaren 11n sei urte beteko dozuz-eta. Jarraitu alai eta umoretsu. Patxuak famelixaren partez.



Zorionak, ENARA, astelehenian 8 urte bete zenduaz-en eta. Ondo pasau gaur ospakizunian!! 8 patxo potolo.



Zorionak, GORKA Bordas, atzo 10 urte egin zenduaz-elako. Famelixa guztiaren eta, batez be, Amaiaen partez.



Zorionak, JUNE Amuategi, bixar bost urte haundi egingo dozuz-eta. Txiki-txikixa naiz, baiña ni naiz Kapitaiña!!



Zorionak, LOREA, martxuaren 10ian gure printzesak zortzi urte egingo dittu-eta. Txokolatzeko muxuak famelixaren partez!!



Zorionak, AIORA, gure maittia, haraiñegun sei urte egin zenduaz-en eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta Oihenarten partez.



Zorionak, UNAX, gaur zortzi urte egitten dozuz-eta. Ondo pasa. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, ANE, gaur bost urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, TEO, momorro, domekan zortzi urte beteko dozuz-eta!! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, atzo bost urte egin zenduaz-elako. Eibarko aitixxa eta amamaren partez.

## hildakoak

- Vicente Uriarte Zamakola. 85 urte. 2015-II-26.
- Josefina Astigarraga Aranberri. 95 urte. 2015-II-27.
- Rosi Ruiz Bilbatua. 66 urte. 2015-II-28.
- Carmelo Pagei Abaitua. 67 urte. 2015-III-1.
- Niceto Larrañaga Larrañaga. 94 urte. 2015-II-1.
- Felicísima Gonzalez Blanco. 93 urte. 2015-III-2.
- Lino Mondragon Lili. 65 urte. 2015-II-3.
- Emilio Urizar Goxencia. 87 urte. 2015-III-3.



Zorionak, MADDI, gure gimnasta panpoxak domekan 11 urte beteko dittu-eta.



Zorionak, MARGARI eta ANTONIO, zuen ezkontzaren 50. urteurrenien. Ondo-ondo ospatu, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAIALEN eta BEÑAT!!, zuen 9. eta 6. urtebetzietan! Zeiñ haundixak egin zarien!! Muxu erraldoi bana amatxo eta aitaxoren partetik!


## jaiotakoak

- Thiago Markel Meyra Aedo. 2015-II-22.
- Ariana Vila Vicente. 2015-II-23.
- Nora Garate Ariznabarreta. 2015-II-23.
- Melody Valdes Valdes. 2015-II-26.
- Jon Lopez Barinagarremereria. 2015-II-27.
- Ekhi Moya Urionabarrenetxea. 2015-II-27.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**  
7an: 19.45 / 8an: 20.00  
9an: 20.30

**"Samba"**  
Zuzendaria: Eric Yoledeno



**(2 ARETOAN)**  
7an: 17.00, 22.30 / 8an: 17.00, 20.00 / 9an: 20.30

**"No llores, vuela"**  
Zuzendaria: Claudia Lloso



**(ANTZOKIAN)**  
7an: 22.30 (1 aretoan)  
8an: 20.00 / 9an: 20.30

**"El francotirador"**  
Zuzendaria: Clint Eastwood



**(1 ARETOAN)**  
7an: 17.00  
8an: 17.00

**"Annie"**  
Zuzendaria: Will Gluck



## BARIXAKUA 6

### GURE ESKU DAGO

**19.00/20.00.** "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalak etab. saltzea. Deporren.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20.30.** "De mutuo desacuerdo" (Pentacion). 15 euro. Coliseoan.

### KONTZERTUA

**22.30.** Petti + Kokein. Beleko tabernan.

## ZAPATUA 7

### ELKARTASUN EKITALDIAK

**10.30/13.00.** Merkatu solidarioa.

**11.00/13.00.** Umeendako jokoak. La Salle ikastetxearen eskutik. Untzagan.

### DUATLOIA

**16.45.** XXIV. Eibarko Duatloia. Irteera eta helmuga Untzagan.

### UMEENDAKO ZINEA

**17.30.** "Maléfica". El Corte Inglesan.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20.30.** "El hombre almohada" (Ilmaquinario Teatro). 11 euro. Coliseoan.

## DOMEKA 8

### EMAKUMEEN EGUNA

**11.00.** "Feminista naiz" photocall-a eta elkarretaratzea. Untzagan.

**12.30.** Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

**14.30.** Emakumeen bazkaria.

**18.00.** Karaoke feminista. Andretxean.



### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20.30.** Luis Piedrahitaren "¿Por que los mayores construyen los columpios encima de un charco?" (El Espectador). 15 euro. Hezkuntza Esparruan.

## ASTELEHENA 9

### IKASTEN

**10.00.** "Gobernuen eragina epaitegi erabakietan", Garbiñe Biurrunen eskutik. Armeria Eskolan.

**10.00.** "Izarrei begira" astronomia topaketa. Beheko Tokian.

## MARTITZENA 10

### JOSKINTZA-PUNTO TAILERRA

**17.00 eta 18.30.** Portalean.

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.** "Cuestiones sobre los aprendizajes", Lehen Hezkuntzako umeen gurasoentzat hitzaldia. Urkizu ikastetxean.

### UMOREZKO BAKARRIZKETA

**19.00.** "Erdaldun berrien kluba", Olatz Pagaldaireren eskutik. Portalean.

## EGUAZTENA 11

### ABIAN AZOKA

**10.00/14.00 eta 16.00/19.00.** Abian Debabarreneko II. Lanbide Heziketa azoka. Armeria Eskolako patioan (EGITARAU ZEHATZA II. ORRIALDEAN).

### IKASTEN

**10.15.** Ibilaldia: Landa-Gasteiz (3 ordu inguru, erraza, bazkaria eraman). Irteera Ego Gaingo autobus geltokitik.

### LITERATUR KRITIKA

**18.30.** "Trilogía del Baztan" lanari buruzko saioa, Skolastikaren eskutik. Portalean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

## EGUAZTENA 11

### BERTSO ASTEA

**19.00.** Tabernako saioa: Julen Zelaieta, Iñigo Mantzizidor "Mantxi" eta Eli Pagola. Gai-emailea: Jokin Bergara. Kultun.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20.30.** "La puta enamorada" (Euroscena). 11 euro. Coliseoan.

## EGUENA 12

### IKASTEN

**10.00.** "Ahozko adierazpenaren teknikak", Josu Novoren eskutik. Portalean.

### ABIAN AZOKA

**10.00/14.00 eta 16.00/19.00.** Abian Debabarreneko II. Lanbide Heziketa azoka. Armeria Eskolako patioan (EGITARAU ZEHATZA II. ORRIALDEAN).

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.** "Arrakastaz komunikatzea, harreman aberatsagoak izateko", BH-ko umeen gurasoentzat hitzaldia. Mogel Isasin.

### KALERATZEAK STOP

**19.00.** Kaleratzeak Stop plataformako bilera irekia. Portalean.

### URTEKO BATZARRA

**19.30.** ...eta kitto!-ren batzarra. Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11).

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokaletan.

## lehiaketak

### ✓ 25. Toribio Etxebarria Sariak

Lanak entregatzea eta informazioa: **Martxoaren 10era arte**, [www.toribiochevarria.com](http://www.toribiochevarria.com) helbidean.

### ✓ XVIII. Eguen Zuri argazki lehiaketa

**Martxoaren 17ra arte**, (19.00ak arte), Arrate Kultur Elkartearen. Informazioa: 943202299 edo [arratekultu@gmail.com](mailto:arratekultu@gmail.com)

## HOROSKOPOA

### ARIES

Aratosteak pasata, parrandarako gogo larregirik ez duzu. Saiatu animatzen, uste baino hobeto pasatuko duzu-eta.

### TAURUS

Mozorroa kenduta ere, ez zaitu inork ezagutzen! Jendea aho zabalik dago azken aldian egindako aldaketekin.

### GEMINI

Ligatzeko asmoarekin bazabiltza, kendu ideia hori burutik. Aurpegi triste horrekin zalantzan jartzen dut inor gerturatzea.

### CANCER

Bizitza ondo pasatzeko eta norbere buruaz barre egiteko egina dago. Dotore zaude, ez izan ardurarik, aurrera beti!

### LEO

Hilabete bi daramazuz zerura begira, izarrek zer esaten dizuten zai. Ez dago astirik: hasi zeinuak interpretatzen.

### VIRGO

Kontuz norekin ligatzen duzu: hasieran sekulako neska edo mutil puxka ematen duena gero agian beste gauza bat da...

### LIBRA

Egun hauetan hain ondo eta horrenbeste barre egingo duzu datorren aste osoa tripako minaz egongo zarela. Gozatu!

### SCORPIUS

Ez zaizula juerga gustatzen... tabernetan jende larregi egoten dela... eguraldiak ez duela laguntzen... Gera zaitez etxean.

### SAGITTARIUS

Erori duzun txamarra horrekin epel-epel bazabiltza ere, jende artean ibiltzeko arazoak emango dizkizu jantzi horrek.

### CAPRICORNIUS


Gustoko duzun pertsona aldamenen izango duzu gau osoan. Baina konturatu zara bera dela? Ez kendu begirik...

### AQUARIUS

Jaia eta parrandak maite dituzu eta asteburu mundialaren aurrean zaude. Aprobetxatu gozamen, bejondeizula!

### PISCIS

Orijinala izatea gustatzen zaizu; baina, horretarako, denboraz egin behar dituzu gauzak. Azkenengo orduan... malo!



## erakusketak

- ✓ **Martxoaren 15era arte**  
*EMAKUMEEN EGUNAREN* inguruko erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Martxoaren 29ra arte**  
"DIALOGOS" Lourdes de la Villa eta Rafael Tormo i Cuenca artisten erakusketa. *Portalean.*  
"EIBAR INDUSTRIALA 2014" erakusketa. *Armagingtzaren Museoa (Portalean).*
- ✓ **Martxoaren 31ra arte**  
*MIGUEL DAVIDEN* argazki erakusketa. *El Ambigún.*  
*PATXI JATOREN* argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*  
*RSFZ ELKARTEKOEN* argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

## farmaziak

- ✓ **barixakua 6**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **zapatua 7**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **domeka 8**  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **astelehena 9**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **martitzena 10**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguzatena 11**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **eguna 12**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **barixakua 13**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

**GAUEZ BETI -2015EAN-**  
**Elorza (J. Gisasola, 18)**

## ikastaroak

- ✓ **Dantza Afrikarrak**  
Martxoaren 14an (zapatua), 10.30/13.30, Portalean. Izen-ematea: arratekultu@gmail.com; 943282299 / 670040086. 25 euro (20 euro Arrate KE-o bazkideak).
- ✓ **Ume Sortzaileak (4-12 urte)**  
Martxoak 14an (zapatua), 10.00/13.00, Maite Arriagaren estudioan (Bista Eder, 11). Izen-ematea eta informazioa: 622053933 telefonoan. 18 euro.
- ✓ **Txapa tailerra umeentzat**  
Martxoak 14an (zapatua), 11.30/13.00, Itzamna akademian (B. Sarasketa, 2). 12 euro. Izen-ematea eta informazioa: Itzamna akademian, 943255001, info@itzamaakademia.net
- ✓ **"Inpresionismoa" (helduendako klase teoriko-praktikoak)**  
Martxoaren 21ean edo 24an, 10.30/13.30, Itzamna akademian (B. Sarasketa, 2). Izen-ematea: Martxoaren 13ra arte, 943255001, info@itzamaakademia.net
- ✓ **UEUko Udaberriko Ikastaroak**  
Izen-ematea: www.ueu.eus helbidean.

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia .....943 03 25 00
- Torrekua .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## SUDOKUA

						3	6
			5	6			4
	7	6	1		5		
5			3	4			
7	9					8	2
			9	8			5
		5		9		8	6
6			1	7			
9	2						

7	4	2	6	8	1	3	5	9
8	1	9	7	5	3	6	2	4
6	3	5	4	9	2	7	8	1
3	5	4	8	2	6	1	9	7
1	2	6	9	7	4	5	3	8
9	7	8	1	3	5	2	4	6
2	9	1	5	6	8	4	7	3
5	6	7	3	4	9	8	1	2
4	8	3	2	1	7	9	6	5

AURREKOEN EMAITZA

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibar erdialdean. 2 logela, egogela, sukaldea eta 2 komun. Trasteroa eta igogailua. 2009ko eraikina. Oso argisua. Tel. 652-757925.  
– Babes Ofizialeko pisua salgai Soroluzen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta despentsa. Garajea eta trasteroa barne. Dena kanpora begira. Jantzitza eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 617-976263.

### 1.2. Errentan

– Pisua alokagai Jardñeta kalean, Sakunen. 2 logela. 100 m<sup>2</sup>. Gasa eta behoko suarekin. Berriztua. Lursail txiki batekin. Kanpora begira, bista ederrekin eta eguzkitsua. Tel. 943-254948 eta 651-678454.  
– Pisua alokagai Ermua erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 648-643715.  
– Pisua alokagai Jardñeta kalean, Sakunen. 2 logela. 100 m<sup>2</sup>. Gasa eta behoko suarekin. Berriztua. Lursail txiki batekin. Kanpora begira, bista ederrekin eta eguzkitsua. Tel. 943-254948 eta 651-678454.  
– Pisua alokagai Ermua erdialdean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 648-643715.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-441517 eta 673-436363.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-197217.  
– Logela behar da Eibarren erroldatze eskubidearekin. Tel. 632-878150.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 1 edo 2 logelakoa. Merke. Tel. 631-282203.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. 450-500 eurotan. Tel. 634-458275.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Taxi-lizentzia saltzen da Eibarren jubilaiziorerengatik. Tel. 696-966865.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Garaje itxia hartuko nuke errentan Barrena eta Karmen inguruan. Tel. 676-105492.  
– Garajea alokagai Estaziño kalean (13. zenbakian). Tel. 943-203741.  
– Lokala alokatzen dut. Hainbat jarduetarako aproposa: bulegoetarako, klaseak emateko... 30 m<sup>2</sup>. Tel. 615-700184.  
– Gazteentzat prestatutako lokala alokatzen dut. 18 urtetik gorakoentzat. 70 m<sup>2</sup>. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Gizonezkoa eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-974442.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-804895.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-651098.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-973549.  
– Neska euskalduna eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 619-041821.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean. Erreferentziak. Berehala hasteko moduan. Tel. 652-587259 eta 632-966192.  
– Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 636-247429.  
– Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna. Tel. 682-277198.  
– Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna. Tel. 697-754174.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Gidatzeko karnetarekin. Erreferentziak. Tel. 689-571882.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-975260.  
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko... Tel. 688-682398.  
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsaldean, asteburuetan... Esperientzia. Tel. 608-886701.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko... Tel. 636-841158.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak zaintzeko eta saltzaile jarduteko. Tel. 631-505705.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 658-907415.  
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 660-511781. Elena.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 674-747065.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 631-896104.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka zein gauzez. Tel. 632-423986.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna zein orduka. Tel. 602-805363.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna zein orduka. Tel. 626-407923.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 655-677035.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-052260.  
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 672-442318.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 626-722291.  
– Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-436363.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 633-244397.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-665395.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 660-290237.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-743240.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-767696.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-377184.  
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 943-901752 eta 638-338816.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-713262.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 631-611370.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 672-867999.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 631-064707.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 608-296879. Jacqueline.  
– Neska ikasle elebiduna eskaintzen da arratsaldean umeak zaintzeko. Tel. 688-686551.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604-226895.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 643-358817.  
– Geriatria tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 652-532589.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-282203.  
– Txoferra eskaintzen da ibilgailu guztietarako nazional mailako eta garraiolari tituluekin lan egiteko. Tel. 633-181350.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-976515.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-124942.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 680-808125.

### 4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da interna Elgoibarko baserri batean nagusia zaintzeko. Autoarekin hobe. Tel. 655-715544.  
– Sukaldari-laguntzaile behar da Eibarko taberna batean. Esperientzia. Tel. 661-700440.  
– Emakume euskalduna behar da goizez etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 639-580932.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Euskerazko klaseak ematen ditut. Azterketarako prestaketa, EGA, HABEren mailak, Osakidetzarako profilak... Tel. 620-608065.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Logela osoa salgai. 2 ohe (1'05eko bakoitza), buru tapizatuarekin, armairua eta 2 mesilla. 250 euro. Tel. 665-733483. Arrate.  
– Janjela salgai. Armairua, mahai handia eta 6 jarleku tapizatuak. Egoera onean. 190 euro. Tel. 665-733483. Arrate.  
– Oherako garabi manuala, bere amesarekin, salgai. 250 euro. Tel. 943-752480 eta 616-533796.  
– Autorako bost gurpil salgai. 175/70R13 82T. Egoera onean. Llantekin. 200 euro. Tel. 658-719676. Enrike.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Armagin kalea, kanposantu ondoan, familiako ondasunak (eraztunak etab.) galduta ditut. Norbaitek aurkitu baditu, deitu mesedez. Tel. 632-997557.  
– Urrezko eraztuna, harri zuriarekin, galduta nuen hilaren 18an (eguztizena) Anbulatorioa eta Gratzinaren artean. Balio sentimental handia. Tel. 677-161259. Olatz.



## Hyundai i20 Berria Zabaldu zure begiak inspirazioari.

Mundua beste begi batzuekin begiratzen baduzu, inspiratzaileena oso gertu izango duzu. Ez zenuen espero eta bapatean barne espazio ikaragarria eta bere mailan inoiz ikusi gabeko material eta detaileak dituen bizitegia aurkituko dituzu. Auto trinko batean ekipamendu ezezagunak diren eguzki-sabai panoramikoaren eta errailez aldatzeko alerta sistemaren modukoak perspektiba berri bat agerraraziko dizute. Zabaldu zure begiak Hyundairi eta ezustekoa espermentatu.

i20 Berria 9.950€-tik aurrera

www.hyundai.es



i20 Berria Gama: CO2 Emisioak (gr/km): 99-155. Kontsumo mistoa (l/100km): 3,8-6,7

i20 1.2 MPI (85CV) ESSENCE-rako Penintsula eta Balearrearako gomendatutako PVP-a (9.950€). BEZ, garrarioa, Matrikulazio zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantentze-eskaintza eta Gobernuaren PIVE Plana (Gobernuaren Pive Planaren baldintzak betetzeari lotuta) barne. Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatzeko duten bezero partikularrei aplikatzeko eskaintza, gutxienez 9.950€-ko zenbatekoan eta 60 hilabeteko epean. Finantza entitatearen azterketa eta onespenera lotutako finantziarioa. 2015/03/31ra arte balioko du eskaintza honek. Ikustarazitako modelo: i20 Style. Mantentze autoaren finantziarioari lotuta. Kontsumatu eskaintza eta mantentzeren baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioen sare ofizialean edo Hyundai.es helbidean

## OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO  
WWW.OARSOCAR.COM

## ELGOIBAR Olaso Poligonoa, 17. 943 74 14 80

OIARTZUN  
943 49 48 30

1 Errepide Nazionala, 469 km.  
(Leroy Merlin-en ondoan)

BEASAIN  
943 80 40 54

1 Errepide Nazionala, 419 km.  
(Hotel Castilloren ondoan)

IRUN  
943 63 97 69

Juan Thalamas Labandibar, 43  
Behobiarako errepidea

@AbianAzoka  
/AbianDebabarrena

www.debegesa.eus

Kontsultatu egitaraua:  
Hitzaldiak  
jardunaldiak  
...

Armeria Eskolako patioan,  
Eibar

**MARTXOAK 11** Asteazkena  
10:00-14:00  
16:00-19:00

**MARTXOAK 12** Osteguna  
9:00-14:00  
16:00-19:00

**MARTXOAK 13** Ostirala  
9:00-14:00

**SARRERA IREKIA**

ARMERIA ESKOLA /// UNI EIBAR ERMUA /// MUTRIKUKO INSTITUTUA  
MEKA LANBIDE ESKOLA /// IMH - MAKINA ERREMITAREN INSTITUTUA  
PCPI EIBAR /// PCPI ERMUA MALLABIA

Antolatzaileak: Debegesa  
Sustatzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia  
Laguntzaileak: EUSKO JAURLARITZA GOBERNO VASCO, Fundación Fundazioa IZARRA, IK4 TEKNIKER, DANOBAT GROUP, Alcora, EGME, EGILE, ALFA, urkoTrank, correanayak, epc, la Caixa, ETXETA

# JEXUSMARI BORROKAN ARI DA “B” DOKTOREAREN AURKA

“B” kontabilitatea, BEZik gabeko salmenta-kanpainak eta “black” txartelak eguneroko ogia ditugun honetan, Jexusmari ausartu da terminal fiskal bat instalatzera taxian.



Kamera  
ezkutuaren  
bideoa




◀ Jexusmari Ubarretxena (Donostiako taxilaria)

“A” gizartea lortzeko

**ZATOK EKONOMIA  
GARDENERA**

Ausarten eta super-ausarten bila ari gara  
[www.ekonomiagardena.eus](http://www.ekonomiagardena.eus)

 #ekonomiagardena



*Gipuzkoa*

**BERRIA**